

## Europar Batasunetik kanpo esportatzen duten gipuzkoako enpresen kopurua %20 handitu da 2015ean

---

Donostia - 2016ko Urtarrilaren 14a

Gipuzkoako Bazkondeak urteko lehen sei hilabetetan igorritako esportaziorako agiriak adierazten dute gipuzkoako enpresek Europar Batasunetik kanpo egindako esportazioak era adierazgarrian hazi direla.

Bi mila eta lau urteko datuekin alderatuz, esportaziorako agiriak eskatu dituzten gipuzkoako enpresen kopurua %20 hazi da 2015ean, 636 enpresa izatera iritsi dira. Era berean, esportazioarako agiriak, merkantziaren jatorria bermatzen dutenak eta esportatutako produktoak bidaliko diren herrialdean erabili ahal izateko egokiak direla egiaztatzen duten agiri hauen izapideak %13 hazi dira.

Esportaziorako agiriak eskatzen diren herrialde dagokionez, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak, India, Txina, Kuba, Aljeria eta Turkia dira merkantzia bertara esportatu ahal izateko agiri gehien eskatzen direnak.

Nabarmenezkoa da ere aldi baterako esportazioen igoera. ATA koadernoaren igoera, %15 hazi da 2015ean. Aldi baterako esportazioak kanpoan egin behar diren instalazioak, makinaren baten abiaraztea edo antzekoak egiteko eraman behar den material profesionalarekin batera dijoazten agiriak dira, oso erabiliak ere feria komertzialetan gure enpresek erakusteko makinaria eraman behar dutenean. Datu hauek guztiak, gure enpresak kanpora ateratzeko duten joera indartu dela adierazten dute eta era berean, gipuzkoako enpresak egunetik egunera nazioartekotzean murgilduta daudenaren adierazle dira.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irene Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347